



Herritar asko animatzen dira krosetan parte hartzera, baina inguruko herrietatik ere korrikalari asko etortzen dira.



Larunbatean
ordua aldatu
behar da,
goizeko
03:00etan
02:00ak
izango dira

Herria Kros-ean

Ostadarrek antolatutako XVI kros herrikoia, igande goizean, Okendotik Okendora

Urriaren 31n, igandean, burutuko da helduen Kros herrikoia hamaseigarren edizioa eta haurren Kros Txikiaren hamaikagarrena. Goizeko 10:30ean hasiko da helduen lasterketa eta haurrera beriz, eguerdiko 12:15ean.

Informazio gehiago aurkituko duzue zenbaki honen barruko gehigarrian.

Gehigarria 5. orrialdetik aurrera.

ALBISTEA/4

500 bat adinduk zazpi kilometroko ibilbidea osatu zuten Gipuzkoako Jubilatuen Martxan

Nekazaritza eta elikadura aztergai Mundubat-en eskutik

Nekazarien borroka, biodibertsitatea, lurraldea eta elikadura burujabea" titulupean dokumental sorta antolatu du Mundubat GKE-k herriko kultur etxean.

Gaurkoan bi izango dira ikusgai, Nikaraguako "Primer el Gallopinto" eta Euskal Herriko "No te comas el sur".

Lehenengoak Nikaraguak elikaduraren aldetik bizi duen krisia azaltzen du. Egunez egun, herrialdeak gutxiago ekoiztu eta gehiago esportatzen duenez, biztanleak bertako baliabidekin elikatzeko gaitasuna galtzen ari dira eta

bere elikaduraren subiranotasuna galtzearen ondorioak erakutsi nahi ditu filmak.

Euskal Herrian egindako "No te comas el Sur" dokumental merkataritzaren egungo egoera islatu eta merkataritzaren sare laburrek duten garrantzia eta nekazariarentzat dituen onurak goraipatzen ditu. Emanaldia 19:00etan hasiko da eta sarre-ara doakoa da.

Atzoko bi proiektzioetan batetik haien lurra ustiapen komertzialetatik babesteko Ekuadorreko indigenen borroka ikusi ahal izan zen "La



Mundubat erakundeak Nekazaritza eta Elikadura gaia ekarri du Lasarte-Oriara.

Pachamama no se vende" dokumentalean. Eta bestetik, "Mujeres Campesinas Andaluzas" ikusi zen.

Mundubat GKEren bi jardunaldiko emanaldi sorta gaur arratsaldeko proiektioekin bukatuko da.

Hurrengo
TXINTXARRI
azaroaren 2an,
asteazkenean,
argitaratuko
dugu. Bertan
Lasarte-Oria
Bai! krosetako
informazioa
luze eta zabal
emango dizuegu.

MEKANIKAKO
TAILERRA



DIMETAL S.A.



ZERBITZU OFIZIALA



LOMBARDINI

SAN JOSE-OLAIZ

• Kamioien txasia konpontzeko

oinarria.

• Aluminiozko eta burdinazko soldadurak.

• Industriako ibilgailuen konponketa.

Ordutegia: 8:30 - 20:30



Lasarte-Oria Bai!
KROSA ANIMATUZI

Neure kabuz



EGON eta EGIN

Ez dago ba alde handirik. Hizki bakarra.

Baina, esango nuke hizki horretan bizitzaren aurrean eduki dezakegun jarrera (ez gehiago, ez gutxiago) dagoela hain zuzen ere.

Egingo nuke, nuke, nuke... EGIN! Eta gozatu!

Gustatuko litzaidake, litzaidake, litzaidake... Borrokatu, eta LORTU!

Bidea BILATU! eta ez bada-go, SORTU!

Hori da bizitza.

Ez zain egon. Ikusle soil. Bizitza nola gure begien aurrean badoan.

Kexatu, kritikatu, penatu, energia negatiboa duten aditzak dira.

Jarrera horiek kalte egiten digute bai guri, eta bai gure ingurukoiei ere.

AKTIBO IZAN!

Bizi izan ditugun egoera eta momentuen metaketak egiten gaitu garena.

Beraz, aukera dezagun, ahal dugun neurrian, zer bizi nahi dugun. Noski ez dago dena gure esku baina bai, uste duguna baina gehiago.

Oraín artekoak pertsona banakoari buruz bezain beste balio du, talde, kolektibo, eta herrientzat ere.

Proposamenak, ideiak, asmoak, lotsarik gabe azaldu, partekatu, erakutsi.

Besteenak entzun, aintzat hartu, ulertzen saiatu, enpatizatu. Beti adostasuna helburu dela. Saiatu behintzat.

Bizitzaren aurrean jarrera positiboa horrek egingo gaitu askeago. Eta, noski, zoriontsuago.

Adibide on bat da Lasarte-Oria Bai! Herri krosa.

EGIN eta gero nahi baduzue EGON. Hori ere egiten jakin behar da eta.

Mailu Arruti

Zorion-agurrak



Manuel eta Maite

Zorionak bikote zuen urteurrenagatik! Semearen partetik.



Haizea

Zorionak eta hamaika muxu wapa! Ondo pasa eguna.



Danel

Zorionak Guapeton!!! Etxeko guztien partetik. Egun ona pasa.



Aitor, Nadia eta Ibon

Zorionak hirukote! Egun ona pasa eta muxu handi-handia familiaren partetik.



Nora

Zorionak udazkeneko lore eder!! Primeran pasa ta segi hola prexioxa. 10 milioi muxu



Nahia

Zorionak printzesa! Segi horrela, beti pozik.Zazpi muxu potolo familiaren partetik



Ximon

San Ximon eta San Juda, joan zen uda eta negua heldu da. ospatukoiau ba!



Eneritz

Zorionak hamabostgarren urtebetetzean, lorita! Aita, ama, Irati eta familiaren partetik.



Antonio eta Manoli

Zorionak zuen urrezko ezteietan. Mila esker guztiagatik! Familiaren partetik.



Isaac eta Angelita

Urrezko eztei zoriontsuak opa dizkizuegu seme-alaba eta bilobek. 50 milioi muxu.



Xabi

Zorionak. Bi aste beranduago, baina... gutxiago falta zaik Kristoren adina izateko.

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

- 70 metroko etxebizitza eguzkitua alokatzen da Usurbilen. Josune 649 424 826
- Garaje marra bat alokatzen da Urbarten. 648 614 769

Lan-eskaria

- Geriatrian laguntzailea, eskarmentua duen pertsona arduratsua jende adindua edo gaixok zaintzeko edo garbiketa egiteko prest dago. Orduka, gauetan edo asteburuetan. Profesionaltasuna

eta tratu ona eskaintzen du. Carlos (680-983527)

- Neska euskalduna eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. Arduratsua eta esperientziaduna. 658741781 - Pili.
- Emakume eskaintzen da etxeko lanak edo pertsona zaharrak zaintzeko. Txostenekin. Harremanetarako, 648 526 080.

Bestelakoak

- Maila guztietarako klase partikularrak ematen dira: matematika, fisika, kimika, lengoaia... Harremanetarako zenbakiak: 943 372 709, 617 159 559, Ana.

Oharra jartzeko:

Tel.: 943 366858 • Geltoki kalea 4
txintzarri@txintzarri.info; www.txintzarri.info
www.txintzarri.iragarkilaburrak.com



Heriotzak

• Luis Callejas Esteban, urriaren 23an, 74 urte zituela

Jaiotzak

- Ariadna Muñoz Montilla, urriaren 22an
- Xabier Lekaroz Salvador, urriaren 21 ean
- Urko Lekaroz Salvador, urriaren 21 ean
- Marc Sanchez Snachez, urriaren 18an



Guardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 28

Urbistondo, San Frantzisko 1
Tel.: 943 366567

Larunbata, 29

Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652

Igandea, 30

Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652

Astelehena, 31

Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652

Asteartea, 1

De Miguel, Kale Nagusia 32
Tel.: 943 371151

Asteazkena, 2

Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774

Osteguna, 3

Gil, Kale Nagusia 24
Tel.: 943 361529

Ostirala, 4

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6
Tel.: 943 363549

Larunbata, 5

De Miguel, Kale Nagusia 32
Tel.: 943 371151

Igandea, 6

Urbistondo, San Frantzisko 1
Tel.: 943 366567

Astelehena, 7

Urbistondo, San Frantzisko 1
Tel.: 943 366567

Asteartea, 8

Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652

Asteazkena, 9

De Miguel, Kale Nagusia 32
Tel.: 943 371151

Osteguna, 10

Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero

Chula, Kardaberaz 48 Hernani, Tel.: 943 551793

Txintzarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.800 • Erredakzioa: txintzarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintzarri ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Onartu dira 2012ko taxien tasak

Ez ohiko bilkuran datorren urterako taxien tasa berriak onartu eta azaroaren 20ko hauteskudeetarako 23 mahaiaik eratu ziren

Udal gobernua ez ohiko bilkuran, 2012rako taxien tasak onartu eta datozen hauteskudeetarako mahaiaik osatu zituen.

Datorren urterako herriko taxien tasak buruntzaldea eskualdea osatzen duten gainontzeko herrien berdinak izango dira udaletxe bakoitzeko ordezkariak egindako bileran hala erabakita.

Erabakitako prezio taula komisioan aurkeztu ondoren, udal batzarrean bozkatu ziren ia alderdi guztien aldeko bozka jasoz. PP eta adskribitu gabeko zinegotziaren abstentzioa izan ziren.



Buruntzaldea eskualdeko taxiek prezio bateratuak izango dituzte 2012. urtean.

TAXIEN TARIFAK 2012

	Minimoa	Km.ko	Orduko(zain)
1 tarifa	4,8270	1,0262	19,6926
2 tarifa	5,8520	1,6438	30,9487
5 tarifa	6,0276	1,6932	31,8772

Gutxieneko tarifa

Datorren urterako berrikuntza nagusiak 5 tarifa deiturikoa eta tarifa minimo baten ezarpena izango dira.

5 tarifa ostiral, larunbat eta jai bezperatan aplikatuko da gaueko 22:00etatik 07:00etara eta tarifa minimoak berriz, 1,5 kilometroko ibilbidea edo 5 minutuko itxaron denbora ordaintzea ekarriko du.

Hau da, nahiz eta erabiltzaileak kilometro bat baino laburrago ibilbidea egin edo taxia 3 minutu zain eduki,

1,5km edo 5 minutu zain egoitearen tasa finkoa ordaindu beharko du hau ezartzen baita gutxieneko distantzia edo itxaron denbora.

Gainontzean, 2012rako tasak horrela geratu dira kontutan izanda, bandera jaisiera deritzona, tarifa minimoarengatik aldatu dela.

1 tarifa asteen zehar 7:00etatik 22:00tara erabiliko da eta 2 tarifa, aldz, gauez, 22:00etatik 7:00tara igandeak barne direla.

Hauteskunde-mahaiaik

Honetaz gain, azaroaren 20ko hauteskunde orokorrak direla eta herriko 23 mahaiaik ere osatu zituzten batzarrean. Sistema informatiko bereziak egindako zozketaz, mahaia bakoitzeko presidente, kideak eta hauen ordezkoren zerrendak finkatuta geratu ziren.

Zorretaren emaitzak udalaren web gunean kontsultatu daitezke. •

EUSKARA

Euskaraz bizi nahi dut! aurkezpena

Euskaraz bizi nahi dut! ekimenaren aurkezpena egingo da gaur, urriaren 28an Donostiako DOKA kafe antzokian arratsaldeko 19:00etan.

Bertan, azken hilabeteotan euskaraz bizitzaren alde egindako hainbat ekimenen berri emango dute protagonistek eta kanpainarako Esne Beltzak egindako abestiaren aurkezpena egingo da.

Kontseiluak bultzatutako dinamika da Euskaraz bizi nahi dut! eta nahi duenak parte hartu ahal izango du aurkezpen berezi honetan. Ekitaldian, euskaraz bizi nahi duen jende ugari parte hartuko du, jende ezaguna eta anonimoa. •

TXAKUR HEZIKETA IKASTAROA

Txakurren jarrera arazoak aztertzen

"Noble y Fiel Amigo" elkarteak Lasarte-Oriako Udalaren laguntza gure herrian aurrera eramaten ari den txakur eta jabe heziketa programako azken aurreko saioa izan zen asteazkenean Manuel Lekuona kultur etxeko hitzaldi aretoan.

Honetan, txakurrek izaten dituzten jarrera arazoak aztertu zituzten. Ezaldu zuten, jabeek eskaintako hezikuntza ez egokia eta genetika dira jarrera hauen oinarria. Hitzaldi aretora hurbildu ziren herritarrek gaia hobeto ulertzeko, besteak beste, txakurren agresibitatea aztertu zuten. Ostein, jarrera horiek nola aldatu daitezkeen ikusi zuten.

Ikastaro honetako azken saioa azaroaren 23an, asteazkenean, izango da Atsobakarreko parkean. Hau saioa praktikoa izango da eta txakurren jarrera aldatzeko teknikak erakutsiko dira. •



Ostadar garaile kadete mailako futbol derbian

Partidu polita jokatu zuten lehenengo larunbatean Texas eta Ostadarrek, I. kade-te mailan. Herriko bi taldeek Michelingo berdegunean neurtu zituzten indarrak, eguraldi ona lagun.

Lehen zatia golik egin gabe igaro zen bi taldeek erakutsitako maila parekotasuna-

ren adibide. Bigarren zatian ordea iritsi ziren golak, Ostadarren alde. Lehena, erdiraketa baten erremateari esker lortu zuten eta bigarrena, area barnean geratu zen baloi galdu bat aprobetxatuz.

Ondorioz, Ostadarrek gehitu zituen jokoan zeuden hiru puntuak. •



LOKO KROSAREN BAT EGINEZ!

Elena Milla (20/45)
Carlos Milla

MILLA,
ETXEEN SALEROSKETA

- INMOBILIARIA
- ETXEBIZITZEN ADMINISTRAZIOA

Oriamendi 2, behea • Tel./faxes: 943 371 600
LASARTE-ORIA

L-OKO KROSAREN ALDE!

INQUIETUD
Neurriak 36tik... 60ra

Nagusia 49 • Tel.: 943 370 290 • Lasarte-Oria



Gipuzkoa osotik etorritako erretiratuek hartu zuten parte Lasarte-Orian igandean burutu zen martxan. Biyak Bat elkarteko eta Udaleko ordezkariak elkarrekin burutu zuten zazpi kilometroko ibilbidea.

Aparteko giroa jubilatuen martxan

Gipuzkoa osoko ehundaka aiton-amonek burutu zuten 7 kilometroko ibilbidea

Aurtengoan Lasarte-Orian burutu da Gipuzkoako jubilatuen martxa probintziala. 500 parte-hartzailetik gora izan ziren eta eguraldi ona lagun, inongo arazorik gabe egin zuten herrian barrena antolatutako 7 kilometrotako ibilbidea. Ibilaldiaren ostean, bazkaria egin zuten Michelingo pilotalekuan "Asociación Guipuzcoana de Jubilados y Pensionistas" elkarteak antolatutako martxa izan zen, herriko elkarte Biyak Bat elkarte eta Lasarte-Oriako udalaren laguntzaz.

JON ALTUNA EGITEGI

Jende andana zebilen Okendo aldean igande goizean. Dozena bat autobus iritsi ziren herrira goizean goiz eta 11:00ak aldera Gipuzkoa osotik etorritako hainbat eta hainbat jubilatutako martxari ekiteko prest zeuden. Minuturo, lau pertsonako taldeetan ateratzen ziren Okendo plazatik. Guztira 144 talde zeuden izena emanda ibilbidea osatzeko eta giro onean burutu zuten bidea.

Osatu beharreko zazpi kilometroko ibilbidea honako hau izan zen. Okendo plazatik atera, Oriaraino joan, osteral Loidi Barrengo pilotalekua pasa, Atsobakarren itzuli txiki

bat eman eta Okendo plazara buelta berriro.

Bazkaria eta dantzaldia

Ibilaldia egin ostean eta sabekal hustuta, 14:30ak aldera bazkaria egin zuten Michelingo pilotalekuan. Mahaiak eskualdeka zeuden banatuta, Gipuzkoa osotik etorri baitzen jendea. Gustura aritu ziren jubilatutako guztiak mahai-inguruetan egunaren nondik norakoak elkarri azalduz.

Postrea, kafea eta kopak mahai gainean zirela eman zitzaion hasiera oroigarrien banaketari.

Hiru sari banatu zituen "Asociación Guipuzcoana de Jubilados y Pensionistas" elkarteak. Lehena, Mertxe Galdós,



500 lagun baino gehiago egon ziren gero bazkaltzen Michelingo frontoi estalian. Giro bikaina izan zuten jubilatuek.

Marisol Tejería, Itziar Camarero-Nuñez eta Marisol Ceca Biyak Bat elkarteko ibiltari talde zaharrenarentzat izan zen, Pablo Barrio alkatearen eskutik. Bigarren, Lasarte-Oriako udalarentzat, martxari eman dion laguntzagatik. Azken berriz, Biyak-Bat elkartearentzat izan zen, martxari emandako sostenguagatik.

Antolakuntza pozik

Jose Riviere Gipuzkoako erretiratu eta pentsiodunen elkarteko presidentek igandean azaldu zigunez "izugarri gustura" daude martxak Lasarte-Orian izan duen harrera onarekin.

"Oso paseo polita eman dugu herrian barrena, lehen aldia da Lasarte-Oriara nato-

rela eta harrিতa geratu naiz, uste baino politagoa da herria eta gainera, espaloi zabalak dauzka paseatu ahal izateko" esan zigun.

Eguraldiak lagundu izanaren garrantzia azpimarratu zuten eta udaleko ordezkariak eskerrak eman nahi izan dizkie euren harrera eta laguntzagatik. •

TABERNA

Buenetxea

KAFETEGIA

Astelehenetik ostiralera goizeko 07:30ean irekitzen dugu
Larunbat eta jai egunetan 09:00etan

Pablo Mutiozabal 2 • Tel.: 943 369508
LASARTE-ORIA

KROSA ANIMATUZI!
Lasarte-Oria Bai!

KAFE BEREZIAK
IRLANDESA
ESKOZESA
KAPUTXINOA
BONBOIA

Infusio naturalak

Txokolatea txurroekin

Probatu gure gosariak !!



Hurrengo orrialdeetan:

- **Lasarte-Oria Bai!** XVI. Krosaren eta XI. Kros txikiaren informazioa eta ibilbideen mapak
- **Elkarrizketa:** Nieves Civicos, korrikalari saiatua
- **Ostadar klubeko atletismo saila,** gero eta sustrai sendoagoarekin

www.txintxarri.info
helbidean
lasterketako
sailkapena eta
argazkiak
igandean bertan

www.ostadarkf.org
helbidean ere
kroseko emaitzak
izango dituzue



RPS 124710

- ◆ implanteak eta hortz fijoak egun batean
- ◆ ia batere erasotzailea ez den ordenagailuz bideratutako kirurgia, punturik erabili gabe
- ◆ "invisalign" ortodontzi ikusezina
- ◆ pazientearen irribarrea sesio batean aldatzen duten karilla estetikoak
- ◆ interesik gabeko finantziakzioa 12 hilabete arte

aldaz
hortz klinika

Lasarte-Oria Bai!
LASARTE-ORIAKO
KROSAREKIN BAT!!

Deitu gure zerbitzua ezagutzeko
943 366 377

Ola Kalea, 10
Lasarte-Oria 20160

San Bartolome, 22
Elgoibar 20870



www.dentalaldaz.com

Nieves Cívicos / Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoiairen I dortsala

‘Gustatzen zaidalako egiten dut korrika’

Lasarteoriatarrek korrika egiten berandu hasi zela esaten du, 24 urte zituenean. Karatea egiten zuen 16 urtetatik eta hori zuen benetan gustuko baino lesio batek hau uztea behartu zuen eta orduan, ahizpak bulztatuta, elkarrekin korrika entrenatzen hasi ziren. Ostadarrek aurten berari eman dio Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoiairen I dortsala. Nieves ia hutsik egin gabe lasterketan parte hartu duen emakumea delako eta lasterketa beraren filosofiaren adibide izateagatik.

Maidar AZURMENDI

Betidnik izan al zara bada kirolzale?

Egia esan ez nintzen haur kirolaria izan. Herrian kiroldegia zabaldu zutenean, karatean izena ematera animatu nintzen. Ordurako 16 edo 17 urte izango nituen eta taldean neska bakarra nintzen. Karatea oso gustura egiten nuen baina lesionatu eta ezin izan nuen jarraitu. Momentu horretan Maite ahizpa oso maila onean zebilen korrikan eta berarekin entrenatzen hasiteko animatu ninduen. Horrela hasi nintzen korrika. Hasieran nire ahizpa eta taldeak hipodromoari bost buelta ematerako, nik bakarra ematen nuen.

Asko kostatzen zitzaidan erritmoa jarraitzea, ahal nuena egiten nuen saio bakoitzean baina batzuetan oso nekagarria eta gogorra iruditzen zitzaidan. Gero poliki poliki gorputza prestatzen joan eta maila hartzea lortu nuen.

Nolatan hasi zinen lasterketan korrika egiten?

Zerbaite naturala izan zen. Maila pixkat hartu nuenean entrenatzen nuen taldearekin lasterketa ezberdinetara korrika egitera joaten hasi nintzen, batzuetan asteburu bakarrean bi egiten genituen. Entrenatzen nuenaz, lasterketa ezber-

dinetan parte hartzea beste pauso bat ematea besterik ez zen izan.

Garai hartan lasterketa askotan ahizpa eta ni ginen emakume bakarrak. Lasterketa asko eginda nago, inguruko gehienak eta baita Biarritz eta Donibane Lohitzunekoak ere besteak beste.

Eta Lasarte-Oria Bai! krosa noiztik egin duzu?

Lehen ediziotik egin dut korrika herriko krosean. Nire herria izanda beti parte hartu nahi izan dut, asko gustatzen zait. Ez dut ondo gogoratzen baina behin edo bitan huts egin dut. Uste dut bat haurdun nengoelako eta bigarrena alaba eduki ondoren gorputza ez nuelako prestatuta ikusten. Herriko ezagunekin korrika egitea beti gogoz hartzen da eta gainera orain ahizpa Gastetean bizi dela, eskertzen da herrian behintzat lehen bezala elkarrekin korrika egitea.

Egun beste lasterketan ere parte hartzen duzu?

Bai baina beti nire erritmoa markatu izan dut. Ez dut lehiakortasunaren gatik korrika egiten, gustatzen zaidalako eta kirolarekin disfrutatzen dudalako baizik.

Horrek esan nahi du, esaterako, nahi ditudana entrenamendu saioak egiten ditudala. Boladak egon daitezke: batzuetan, entrenatu gabe egotea era-



Lehen ediziotik egin dut korrika. Nire herria izanda beti parte hartu nahi izan dut. Asko gustatzen zait.

bakitzen dut alabarekin edo familiarekin denbora gehiago pasa nahi dudalako adibidez. Horregatik lasterketan parte hartzeko erabakia berdin hartzen dut, gogoa badut joaten naiz eta bestela ez. Azkenekotakoak izan dira Porontxo jailetako lasterketa herrikoia Egian, Urnietako Herri Bira eta Faro de la Plata igoera Pasaian.

Bereziki gogoratzen duzun saririk jaso al duzu?

Sariak irabazi izan ditut. Batzuetan dirua izan da eta gehienetan trofeoa oroigarri gisa. Bereziki gogoratzen dut Adarrarako igoera egin nuen lehen aldian. Ahizpa eta ni ginen emakume bakarrak eta

berak gizonetzkoekin lehiatzeko maila ona izan arren, atzean etorri zen nirekin, ez zegoen ibilbidea guztiz ondo markatuta eta jaitserian galdu egin ginen! Bidea aurkitzean ahizpa azkarrago joatea bulztatu nuen behintzat berak saria eskuratzeko, bera lehenengo iritsi zen eta ondoren ni. Azkenean biek saria jaso genuen berak 50.000 peza eta nik 25.000. Nahiz eta neska bakarrak izan bi orduetik gora eginda sari gabe gertatzen ginen.

Egia esan hasierako urteetan lasterketa askotan gertatu zitzaigun emakume bakarrak izatearena horregatik ere, kopa asko ditut etxean.

Lasterketa herrikoiak asko aldatu al dira?

Asko. Batetik jendetzak parte hartzen du egun, bai gizonetzkoek baita emakumezkoek ere, eta bestetik, garesti ateratzen da korrika egitea. Ez beti, ez da lasterketa guztietan hori gertatzen, batetik bestera alde handia dago.

Lehen gehienak doakoak ziren eta orain bezala, kamiseta ematen zuten opari. Orain hamar eurotik gora ordaindu behar da gehienetan eta nire ustez zenbait kasutan, ez guztietan, gehiegizko prezioa da Behobiaren 33 euroak adibidez.

Parte hartze handiarena polita da, horrek publiko gehiago erakartzen du eta azkenean asko laguntzen du korrika zoazela animoak eta txaloak entzutea. Hasieran ia ikuslerik gabeko lasterketak egitea gogoratzen dut eta nahiago dut publikoa hor dagoela ikustea.

AINHUA TABERNA

Razioak
Pintxoak

...
Etorri dastatzera!

Kale Nagusia 46 • Tel.: 943 370885

KORRIKALARIEKIN BATERA!

Polita da Lasarte-Oria Bai! kros herrikoian 1 dortsala jasotzea. Niretzat urteetako presentzia eta lana saritzea da.

Nola prestatzen dituzu lasterketak?

Saiatzen naiz beti entrenamendu maila bat mantentzen, astean bitan edo lautan ateratzen naiz korrika egitera eta horrek laguntzen dit lasterketarako gorputza prest edukitzen.

Gainera urteak aurrera doaz, eta gorputza ez da berdin erreuperatzen saio gogor baten ondoren: Hori ere kontutan izan behar da. Dietari dagokionez, oso gozozalea naiz betidanik eta ez naiz gehiegi zaindu, jatea gustatzen zait. Hori bai, lasterketa aurretik gosari arina egiten dut.

Marka pertsonalak hobetzea garrantzitsua al da?

Denbora onak lortzea beti da pozgarria kirolariarentzat. Ez naiz oso zorrotza nire buruarekin baina marka hobetzea beti da saria. Orain niretzako duela bost urteko denbora egitea pozgarria da, horrek esan nahi du maila batean mantentzen naizela nahiz eta urte batzuk gehiago eduki. Hala ere, lasterketa egun batzuetan korrika hasi aurretik konturatzen zara ez duzula gorputzik, hamaika arrazoi

medio, eta orduan ahal dena egiten da eta ez da ezer gertatzen. Ez naiz marka pertsonalengatik estutzen.

Zein da zure helburua igandeko krosetan? Denbora jakin bat egitea?

Nire helburua arazorik gabe eta gustura korrika egitea da. Betiko maila ematen ahaleginduko naiz eta marka hobetzea lortzen badut hobeto baina ez nau bereziki kezkatzen. Ondo dakit noraino iritsi naitekeen eta 1 dortsala eramateagatik ez naiz azkarrago joaten saiatuko.

Zer sentitzen da 1 dortsala edukita?

Sari polita da. Beti hor egon naiz herriko lasterketan baita mota honetakoetan ere eta nolabait presentzia hori eta hainbeste urtetako lana saritzea da.

Ostadarrek dio lasterketaren filosofiarekin bat egiten dudalako eman didatela 1 dortsala eta egia da zaletasunak bultzatu nauela korrika egitera. Nahiz eta egoera onenean ez egon, beti parte hartu izan dut nire herriko lasterketan bertako lagunekin bat egiteagatik.



Donostian egiten den 10 kilometroko Hiru Hondartzetako lasterketan Nieves Iñigo Gómez senarrarekin korrika.



San Hilario lasterketan Nieves, Manolo Fernández laguna eta Iñigo senarrarekin.

Eman behar zidatela esatean, burura nire ahizpa etorri zitzaidan. Bera Gasteizen bizi denetik ezin izan du urtero herriko lasterketan parte hartu baina bestela berak mereziko luke dortsal hau. Oso maila oneko korrikalaria izan da eta horretan mantentzen saiatzen da. Hasi nintzenean berak gizonetzkoen mailan korrika egiten zuen. 16 urterekin Landaberrin hasi zen korrika egiten eta marka onak lortzera iritsi da bere ibilbide luzean.

Erresponsabilitatea al da 1 zenbakia eramatea?

Bai, herriko jendeak ezagutzen nau eta igandean zer egi-

ten dudan ikusi nahiko dute. Soilik espero dut ez lesionatzea eta nire mailan lasterketa duina egitea.

Lasterketa baten aurretik beti jartzen naiz urduri eta kasu honetan badakit inoiz baino handiagoa izango dela urduritasun hori.

Alaba aipatu duzu, gustatuko litzazuke zurekin korrika egingo balu?

Bost urte ditu orain eta egia esan bai gustatuko litzaidake berarekin noizbait korrika egitea, baina hori, berak aukeratu behar du. Ez dut nik korrika egiten dudalako horretara derrigortu nahi.

Agian futboleko ibiltzea nahiago izango du edo kirola ez du gustuko izango, auskalo, oraindik txikia da.

Igandean kros txikian parte hartu nahi duela komentatu du etxean, bere eskolako lagunekin batera korrika egin nahi duelako baina ikusiko da. Berez oso ume lotsatia da eta agian kalean biltzen den jendetza ikusita ez du momentuan atera nahiko. Niri noski ilusioa egingo lidake igandean kros txikian alaba korrika ikusteak.

Noiz arte korrika? pentsatu al duzu?

Ikusiko da, ez dut gehiegi pentsatzen egia esan. Urteak aurrera egin ahala egiten ditudan lasterketa kopurua jaisten joan naiz eta suposatzen dut hasi bezala egun batean gehiago ez egitea erabakiko dudala. Gorputzak eutsi bitartean behintzat korrika egiten jarraitzeko asmoa daukat. •

Filosofiarekin bat egiten dudalako eman didate 1 dortsala eta egia da zaletasunak bultzatu nauela korrika egitera.

LOKO KROSAREKIN BAT EGINEZ!



Lasarte-Oria Bai!

Maite

BETELU

- B Gestoria**
- B Aholkularitza**
- B Inmobiliariako zerbitzuak**
- B Aseguruak**
- B Etxebizitzen administrazioa**



Aralar plaza 4 behea • LASARTE-ORIA • Tel.: 943 364886 • Faxes: 943 372117



XVI. Lasarte-Oria Bai Kros Nagusiaren ibilbidea



BEKTAKO FABRIKAZIOA
Solomaca baraxurifan-Baserri patea
Odolkira- Solomo onituzua

Tipokikak- Salixtikak
ZORIONAK
WORMIKALARIEN!

Eixeko Ikonitza
Txistora

ADURIZ DE LASARTE S.A
Lasarte-Oria
Lodi Barren Kalea 3 • Tel.: 943 361278 - 943 361655 - 943 362451

USURBIL
Garaiea
KONPONKETAKO
TAILERRA

FIBR
SERVICIO

Zumaburu apartakalea 18
Tel.: 943 362463 • Fax: 943 360360
talleresusurbildm@hotmail.com

InmoGes
Inmobiliaria

KROSAREKIN
BATERA!

Kale Nagusia 12-3
Lasarte-Oria
Tel.: 943 376662

MAIDER
Taberna-Jatetxea

IRIOSA ANIMATZU
Lasarte-Oria Bai

- Asteburuko menu bereziak
- Egunko menuak
- Ganeko menuak
- Karako zerbitzua
- Pintxoak
- Bokatak
- Barneak
- Pater konbiniatuak

Hipodromo etorbidea 7 • Tel.: 943 362700 • LASARTE-ORIA

ELEKTRIZITATE
ARRREGUI

- TE/HL-FI
- Instalazio elektrikoak
- Material elektrikoak
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak

KROSAREKIN
BATERA!

Kale Nagusia 39 • Tel.: 943 361880 • Tel/Fax: 943 372321 • LASARTE-ORIA

FISIOTERAPIA ZENTROA
Ibaiondo

Fisioterapia Masajeak
Errehabilitazioa Osteopatia

Ola Kalea, 12 - behea. ezk - LASARTE-ORIA
Tel. / Fax: 943 370 306 - fisioibaiondo@gmail.com

KROSAREKIN
BAT EGINIEZ!

kima
masaje-lekua

Goyo Martin
Xabier Carbayeda

KROSAREKIN
BAT EGINIEZ!

Kale Nagusia 44 • Tel.: 943 366197 • LASARTE-ORIA

Lasarte-Oria Bai! Krosa, Okendora

■ Igandean, hilaren 30n goizeko 10:30ean hasiko da XVI. edizioa ■ Okendo plazan egongo da helmuga ■ Dorsalak, txipak eta kamiseta teknikoak lasterketa bezperan banatuko dira

Bi urteren ostean, Lasarte-Oria Bai! kros Herrikoiak Okendo plaza berreskuratuko eta bertan izango du helmuga. "Okendo plazak sinbolismo berezia du; Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoia bertan jaio zelako" adierazi zuten antolatzaileek krosaren aurkezpenean. Baina,

beste berrikuntza batzuk ere baditu, igandean 10:30etatik aurrera gure kaleetatik barrena igaroko den kros herrikoia XVI. edizioak, garrantzitsuen dorsal, txip eta kamiseta teknikoak larunbat eta igandean banatuko direla Michelngo pilotalekuan.

Nerea EIZAGIRRE

Goizeko 10:30ean emango zaio hasiera Ostadar Saiarre Kirol Taldeak antolatutako Lasarte-Oria Bai! XVI. Kros Herrikoia-ri. Erketz Euskal Dantza Taldeko dantzariak agurra dantzatuko diete korrikalariei.

Lehendabizi gurgildun aukilasterketako parte hartzaileak aterako dira, eta ostean, gainerako korrikalariak. Helduen sari banaketa eta gero, 12:15ak aldera Kros Festaren hamaikagarren edizioa martxan jarriko da.

Behin herri erdialdeko obrak amaitu eta gero, Ostadar Saiarre Kirol Taldeak aukera izan du Krosaren ibilbidea herriko erdi gunera luzatu eta Okendo plazara bueltatzeko. Bertara iritsi baino pixka bat aurrerago, Laubide bezala ezagutzen den bideturtean, egongo da helduen helmuga.

Baina ez da hau aldaketa bakarra, irteera Frutas Ruiz fruta-dendaren parean izango baita. Gauzak honela, probak bere jatorrizko luzera berreskuratzen du eta parte-hartzaileek 10.500 metroko ibilbidea bete beharko dute, azkeneko bi edizioetan baino 500 metro gehiago.

Dorsal eta txip banaketa

Era berean, dorsala, txipa eta kamiseta teknikoak banaketak ere berrikuntza bat dakar.



Igandea goizean 1600 korrikalari ibiliko dira gure herriko kaleetatik barrena eta helburu bakarra izango dute Okendo plazan egongo den helmugara iristea.

Aurreko urteetan ez bezala, lasterketa bezperan, bihar urriaren 29a, arratsaldeko 15:00etatik 19:30era bitartean eta lasterketa egunean, igandean, aldiz, goizeko 9:00etatik 10:00era bitartean banatuko dituzte Michelngo kirol guneko pilotalekuan.

Horren harira, Lasarte-Oria Kirol Taldeak mezu hau helarazi nahi izan die antolatzaileek: "Ahal duzuen neurrian jaso beharrekoa lasterketa bezperan jaso; modu horretan lasterketa egunean lasaigo ibiliko zarete

eta guk ere korrikalarien ilarak saihestuko ditugu igandean".

Honetaz gain, dorsala, txipa eta kamiseta teknikoak jaso ahal izateko korrikalari guztiek egiaztagiraren bat aurkeztu beharko dutela azpimarratu dute Ostadarreko arduradunek.

Lasterketa Herrikoien Liga

Gainera, lasterketaren antolatzaileek gogora arazi dutenez, Lasarte-Oria Bai! krosa aurten ere, "Lasterketa Herrikoien II. Ligarako" puntuagarria izango da.

Azpitarragarria da urte betean ligaxka honek izan duen garapen interesgarria. Izan ere, iaz hamar lasterketa jokatu baziren ere, aurten 40ra iritsi dira. Ligaxka honen barruan daude, esate baterako, Donostiako Maratoia, Azeri bila proba, Josetxo Imaz memoria, zein Donostiako eta Hondarribiako San Silvestre ezagunak ere.

Lasterketa herrikoien sariak honetan parte hartzeko behar beharrezkoa da ligaxka honetako txip horia gainean eramatea.

Ordu aldaketa

Bestalde, urtero legez, ez ahaztu larunbatetik iganderako gauetan ordua aldatzen dela, gaueko 3:00etan ordularia atzeratu eta 2:00ak izango dira.

Urteak dira Krosa eta ordu aldaketa asteburu berean egingen direla, baina beti dago parte-hartzaileen bat ordu bete lehenago agertzen den.

Lasterketa amaitu ondoren, parte-hartzaileak ura, fruta eta freskagarriak izango dituzte eskura, energiak berreskuratzen. Eta dutxatzeko, kirol guneko instalazioak. •

DAKARA JATETXEA

Espesialitatea hostopiletan

Erraxioak

Entsaladak

Ogitartekoak

Eguneko menua
asteartetik ostiralera



ZORIONAK KORRIKALARI GUZTIEI!

Ostegunetan nazioarteko afariak

Kale Nagusia 8 behea • Lasarte-Oria 20160 • Tel.: 943 575859





Aurten Okendo aldera egingo dute korrika Kros Txikian parte hartuko dutenek.

Kros Txikian ere aldaketa ugari

Helduen krosa eta sari banaketa amaitu ostean, Kros Txikiaren txanda izango da. Bost eta hamalau urte bitarteko 800 korrikalari gaztetxoek lasterketaren zirkuituak berrikuntzak ditu aurten, handiena, helmuga Okendon jarriko dela.

Urtero legez, adinaren arabera sei mailatan banatuak egongo dira etxeko txikiak.

Ibilbideak

Esan bezala aurtengo Kros Festaren berrikuntza nagusia Okendo plazako helmuga izango da. Beraz, lasterketen norantza aldatu egin da aurten, iaz haur eta gaztetxoek Michelin aldera korrika egin bazuten, oraingoan Okendo aldera egingo dute.

Gauzak honela, lasterketarako irteera puntuetan aldaketak daude.

A mailakoek, txikienek, 100 metro egingo dituzte Ruiz fruta-denda eta Okendo artean.

2005 eta 2004 urtean jaio-tako haurrek Geltoki eta Iñigo de Loyola kale arteko bideguru-

rutzetik Okendo artean dauden 150 metroak egingo dituzte.

Handienek, aldiz, 400, 800 eta 1200 metroko ibilbideak osatu beharko dituzte: Okendon hasi, Hipodromo kalea hartu eta Uistin kaletik barrena joango dira. Blas de Lezotik Geltoki kalera egin eta Okendon bukatuko dute. Gero eta helduago, orduan eta bira gehiago egingo dituzte.

Haurrak nora eraman

Alboko irudian ikusi daitekeen bezala, 2006 eta 2004 urte artean jaiotako haurrek, Iñigo de Loyola kaleko plazan izango dute harrera gunea. Eurria egingo balu Michelingo kirol gunean izango litzateke harrera gunea.

Gainontzeko guztiak, hau da 1996etik 2003ra bitartean jaiotakoak, Udaletxe berriko arkupeetan eta Antonio Mercero plazan bilduko dira.

Antolatzaileek eskertuko lukete, 12:00etan haur guztiak bere hasiera gunean egotea, era honetara, taldeak eta lasterketak garaiz antolatu ahal izateko denbora edukitzeko.

TALDEA	URTEA	ORDUA	DISTANTZIA
(A)	2006	12h15'	100m
(B)	05/04	12h25'	150m
(C)	03/02	12h35'	Bira 1
(D)	01/00	12h45'	2 Bira
(E)	99/98	12h55'	3 Bira
(F)	97/96	13h05'	3 Bira

Harrera gunetik irteera puntu-rako bidea begiraleen laguntza egingo dute.

Behin krosa amaitu eta gero, haurrak, Okendo plazako helmugaren ostean jaso behar dira.

Izena ematea

Gaur, ostirala, izena emateko aukera dago, Ostadar S.K.T.ko egoitzan.

Bestela, igandean bertan, Okendo plazan egongo den informazio gunean ere egin ahal izango da, 11:00etatik 12:00etara bitartean.

Bost euro ordainduta parte hartzeko aukera izango dute etxeko txikienek. Gainera, parte hartzaile guztiek kamiseta bat, domina bat eta edateko jogurt bana jasoko dute. •



Kros txikian parte hartzeko izena gaur eman behar da bulegoan edo igandean Okendon.

Bideo Lagunak

Betiko zerbitzua gure aholkularitza onenarekin

BEGIRATU GURE ESKAINTZAK!

Inguruko erakusketarik onena!

Donostia Etorbidea 2 • Lasarte-Oria • Tel.:943 373134
jose@bideolagunak.com • www.bideolagunak.com

%20 DESKONTUA

RENOVE PLANA

10 HILABETE INTERESIK GABE
ETA HASI URTARRILEAN ORDAINTZEN

Urriaren 1etik 30era

Atletismo saila, lasterketaz lasterketa

■ Ostadar S.K.T.-ko atletismo saila duela hiru urte sortu zen ■ Jantzi berriak aurkeztuko ditu Lasarte-Oria Bai! Krossean eta talde argazkia egingo dute 9:30ean

Orreaga-Zubiri mendi lasterketa, Idiazabaleko krosa, Azeri krosa.. Hauek dira Ostadar S.K.T.-ko atletismo saileko korrikalariak egin dituzten lasterketetako batzuk. Igandean, Lasarte-Oria Bai! krosean parte hartuko dute taldeko

gehienek, baita iaz irabazlea izan zen David Martin herritarrak ere. Hala ere, saileko arduradunek lasterketa gogorra eta borrokatua izango dela aurreratu dute, herrian puntan dabilzan korrikalariak baitaude.

Nerea EIZAGIRRE

Duela hiru urte sortu zen Ostadar Saiarre Kirol Taldeko atletismo saila. Taldeko sustatzaileretako batekin, Joseba Iparragirrekin bildu gara sail honen hastapenak eta nondikorakoak ezagutzeko.

Josebak azaldu digunez, "zazpi-zortzi lagun ginen igande goizetan korrika egiteko geratzen ginenak. Talde horretako kideetako batek kamiseta bat egiteko aukera zegoela aipatu eta, Julen Ollokiegik eta Xabi Esnaolak komentatu zuten Ostadarrekin hitz egin zitekeela".

Herrian zegoen korrikalari kopurua ikusita, Ostadarrek baietza eman zuen. "Bere izean saila sortzearekin ados zegoela, saila aurrera eramateko lekua utziko zigula, baina guk kudeatu behar genuela esan ziguten. Eta Julen hasi zen horretan lanean" adierazi digu.

Hasiera batean 78 korrikalari eman zuten izena, 70 gizon eta 8 emakume. Aurtan berriro kanpaina egin du sailak eta beste 20 pertsona sartu dira taldean.

"Lasarte-Orian jende asko dago korrika egiten duena" aipatu digu Joseba Iparragirre: "neska asko dago gainera, baina taldean bakarrik zortzi ditugu. Alde handia da" atxiki du.

Horregatik, lasarteoriatarak eta emakumeak, batez



Ostadar Saiarre kirol taldeko atletismo atala osatzen duten korrikalarietako batzuk, duela hiru urte, lehenengo jantziarekin egin zuen talde argazkia.

ere, animatu nahi ditu taldeko kide izan daitezen.

Entrenamenduak

Aipatu legez, taldeko kide batzuk igandeetan elkartzen dira entrenatzeko. "Hamalau edo hamabost bat pertsona biltzen gara. Lehen goizeko zapietan biltzen ginen, orain 8:00ak aldera. Orduak atzera botatzen du normalean" aipatu du.

"Hasieran, jendeak egiten zuen denborekin talde desberdinak egitea zen asmoa"

dakar gogora Josebak. "Maratoiak egin genituen denboraldian bi orduko saioak egin izan genituen" onartu du; "orain mendi lasterketak egiten hasi gara eta ordu bete edo gehiago egiten dugu korrika" atxiki du.

"Lesioak direla eta, ez gara asko biltzen igandeetan. Gainera, negua dator eta Behobiaren ostein, jendea gutxiago animatzen da" jakin arazi digu.

Eta azaroaren 27an egingo den Donostiako maratoian

gutxi batzuk parte hartuko dutela aurreratu digu.

Denboraldia

Izan ere, Josebak onartu diguenez lasterketen munduan ere denboraldiak daude.

"Orain jendeak krosa prestatzen du eta gutxi batzuk Behobia" adierazi digu. "Behobia hogeikilometro dira, ez da txaxetan hartzeko lasterketa. Eta, hala ere, erokeriak egiten dituzte batzuk parte hartu eta bukatzeko" jarraitu du.

Behobia pasa eta bi igandera, aipatutako Donostiako maratoia dago.

"Beste urteetan Gasteizko maratoi erdian ere parte hartu dugu, hau abenduko hirugarren igandean izaten ohi da. Giro polita dago eta jende gutxiago" aitortu du. Hala ere, lasterketa horretan hotz handia izaten dela ere aipatu du, "iaz 5 gradu eta duela bi elurra ere egin zigun".

Urtarrilaren hirugarren igandean, Idiazabalera hurbiltzen direla ere adierazi du,

M. Berasategi

Kafeak



Beti dago aukera kafe on bat hartzeko



INFUSIOAK

- TE BREAKFAST
- TE TXURIA
- TE BELTZA
- TE GORRIA (Pu-Erh)
- TE BERDEA
- TE EARL-GREY
- TE JAVA
- TE CEYLAN
- TE SAPOREAREKIN e.a....

TEINA GABEAK

- MELISA, TILA, KAMAMILA, MENTA, SAGARRA, ANIXA, MAKILGOXO, ROOIBOS, e.a....

KAFE ARABIKOA

- PARACATU (Brasil)
- TARRAZU (Costa Rica)
- Betiko KOLONBIA



KROSEKO KORRIKALARIEKIN BAT EGINEZ I



Lasarte-Oria Bai!

Hipodromo etorbidea 1 • Tel.: 943 361316
LASARTE-ORIA



David Martin korrikalariak hainbat lasterketa irabazi ditu aurtan, iaz Krosa.

“kriston hotza egiten du eta batzutan izotza. Giro oso ona dago. Gazta ekarri nuen etxera aurtan”.

Lasterketa kopuruaz galdetuz, “batzuek gehiago, besteak gutxiago. Aurtan mendi lasterketa ugari egin ditugu, bost edo sei. Gero abuztuan errepideko lasterketetara egin genuen eta guztira hamar bat lasterketa egin ahal izan ditugu batzuek” aipatu du.

Honetaz gain, lasterketa herrikoietan zozketa eta oparitu ugari daudela jakin arazi du. “Herri txikietan zozketak daude, lasterketa handietan aldiz ez dago horrelakorik. Kasu hauetan negozioa bihurtu da jendeak korrika egitea,” salatzen du.

Asmoak

Lasterketa hauetan parte hartu ahal izateko eta korrikalari

erraztasunak emateko hainbat asmo dituztela jakin arazi digute sailaren kudeaketan lanean diharduten Joseba Iparagirre eta Julen Ollokiegik.

Esate baterako, indar probak merkeago egiteko klinika batzuekin harremanetan daudela aipatu digu. “Policlinicak %20 edo 25eko beherapena egiten die Behobian parte hartzen dutenei. Baina taldeko jende askok ez du egiten eta guk taldeko guztiak egin ahal izatea nahi dugu” azaldu digu Josebak.

Honetaz gain, nutrizio enprekin eta masajista batekin ere negoziaketetan dabiltzala jakin arazi digu.

Bestalde, web orrialdeari astindu bat eman eta garrantzia gehiago eman nahi diotela azpimarratu du.

Era berean, urte amaierarako afari edo bazkaria egite



Lasarte tabernako Javier Mendo eta Frutas Ruiz dendako Rafa Ruiz Joseba Iparagirre atletismo saileko arduradunarekin.

ko asmoa dutela aipatu digu, “taldeko jendeak elkar ezagutzeko”.

Jantzi berriak

Asmoekin jarraituz, aurtan kroserako jantzi berria izango dutela aurreratu digu, Frutas Ruiz eta Lasarte tabernak babestutakoa.

Aurtan jantzia berritzeko asmoa agertu eta “herriko dendak babestua izatea nahi genuen. Frutas Ruizek baietza eman zigun lehenengoan. Eta Iñaki Mendok Lasarte tabernakoak jakin zuen babes bila genbiltzala eta bera ados zegoela aipatu zigun”.

Eta taldeko kideei deialdia egin die, “igandean 9:30ean, Michelingo kirol gunean argazkia aterako dugu”.

Era berean, lehenengo jantzia lortzeko ere babesleak lortu behar izan zituztela gogoratu du, “Iparfrio eta Frutas Ruizekin hitz egin genuen orduan. Bi urterako babesa eman ziguten, baina hiru urteetara luzatu dugu” gogoratu du.

Gainera, bitxikeri moduan zera esan digu: “apirilaren 28an estreinatu genuen eta

David Martinek Andoaingo krosa irabazi zuen maiatzaren lehenengo asteburuan”.

Horregatik, eskerrak eman nahi dizkie atletismo sailak babesleei.

Lasarte-Oria Bai! krosa

Bestalde, igandean egingo den Lasarte-Oria Bai! krosari buruz galdetuz, “Lasartek fama hartu du. Iaz 1.300 pertsonak eman zuten izena eta, 1.200 atera ziren. Jende dezente da” onartu du.

Krosaren ibilbideari buruz, “ibilbide polita da, zuzena eta ez oso gogorra. Urtero ikusten da jendea lasterketa gustatzen zaiola. Ea horrela jarraitzen duen!” aipatu du.

Partehartzaile kopuruari dagokionez, “oraintxe ez dakigu ziur taldeko zenbatek parte hartuko duten krosean. Oro har, ere ez noski, internet bidezko izena ematea handia da eta”.

Hala ere, krosa borrokatua izango dela aurreratu du, “Lasarte-Oria maila dago. Korrikalari asko daude. David Martin oso ondo dabil eta Jose Luis Delgado ere fin dabil. Neskek ere maila han-

dia dute Pili Bodegas eta Nieves Civicos hor daude. Azken honek 1 dortsala eramango du gainera”.

Giroa

Lasarte-Oria Bai! krosari buruz bait nabarmentzeko eskatzean, Joseba Iparagirrek argi dauka: “giro oso ona dago egun horretan. Partehartzaileen arteko giroa ere oso ona da”.

Eta korrika festa ere aipatzen du, “haur mordoak parte hartzen du. Hori da politena, haiek dira eta etorkizuna”.

Gauzak honela, Lasarte-Oriako herritarrek krosaren partehartzera animatu nahi ditu: “bai helduen edo haurren lasterketetan, baita korrikalariak animatzen ere”.

Eta bi gomendio egiten die lasterketan izena eman dutenei, bata Lasarte-Oriako krosaren ongi pasatzeko eta bestetik kamiseta aurretik hartzeko: “1.300 pertsona asko dira, iaz ilera handiak sortu ziren eta lasaigo ibiltzeko, Lasarte-Oriako korrikalari txiki, dortsala eta kamiseta larunbata arratsaldean hartzea gomendatzen diegu atletismo sailekoek”. •

ANAIAK
JANTZI-DENDA
 Kale Nagusia 25 • LASARTE-ORIA
 Tel: 945 362386

Lasarte-Oria Bai!
KROSA ANIMATUZ!



**URTEURRENA
1935-2010**



**ILLARRETA
ITURBIDETA**



L-OKO KROSAREN ALDE!



ERAKUSKETA ETA DENDA
Geltoki kalea 21 • LASARTE-ORIA
Tel.: 943 363147
linterneriailarreta@yahoo.es



TAILERRA ETA BULEGOA:
Ugaldea polig. 8 • Tel.: 943 361752
USURBIL • illarreta@yahoo.es

- Zink, berun eta arbelean eraikuntzak eta konponketak
- Instalazioak: garbitzeko ura, berogailua, gasa, zoru bero-emalea eta aire girotua
- Erakusketa eta salmenta: aparatu sanitarioak, kanilak, komuneko altzariak, manparak eta osagarriak

- Igeltserotza orokorra
- Etxebizitzen eta lokalen berrikuntza osoa
- Gremioen kordinazioa
- Arreta pertsonalizatua



**Nagusia 50, behea
Lasarte-Oria
Tel.: 943 36 36 11**



**Nagusia 36, behea 20160 Lasarte-Oria
Tel.: 943 37 04 46**



**Lasarte-Oria Bai
LASARTE-ORIAKO
KROSA
ANIMATUZI!**

HARATEGIA



**Geltoki Kalea 15 behea
Lasarte-Oria
Tel.: 943 376585**

URDAITEGIA



IZARRA

BITXITEGIA



Lasarte-Oria Bai!

**KORRIKALARIEKIN
BAT!**

www.izarrabitxitegia.com

Geltoki kalea 19 • Tel.: 943 371384
Juan XXIII.a plaza, z/g • Tel.: 943 364945

IPARJOY® A.I.E.

